

SOZIOLINGUISTIKA FRANTZIAN

Eguzki Urteaga

EHU

Helbide elektronikoa: eguzki.urteaga@ehu.es

SARRERA

Azken hamarkadetan, soziolinguistikak garapen nabarmena ezagutu du frantzian, berrikuntza teoriko eta metodologoa ekarriz, argitaratzen diren liburu zein artikuluen anitzek joera hori erakusten dutelarik. Labov-ek dio linguistika orokorraren barruan sartu daitekela, Saussure-n planteamenduak kritikatu. Zentzu horretan, esan daiteke, soziolinguistika, linguistika nagusiaren kritika batetik habiatu dela. Frantzian, soziolinguistika 13 eskoletan banatzen da, Rouen-go eskolako linguistika sozialetik eta dialektologiatik, Bourdieu-k inspiratu duen erreferentzien teoriara, eskola okzitandarretik igaroz. Ondorioz, ez dago soziolinguistikaren batasunik. Oso ezberdinak diren lan taldeak, beraien erreferentzia teoriko, objektu eta problematikekin, aurkatzen dira jakingaiaren definitzioaren inguruan.

Aniztasuna da nagusi, are eta gehiago jakitean soziolinguistika alban dauzkan beste jakingai batzuei loturik dagoela (soziologia, historia, psikologia, linguistika), problematika eta gai berriak sortuz baita ere ikerketak bultzatuz. Labov-ek zehazten dituen aztergaiez gain, soziolinguistika garaikidea, hizkuntza komunitatera, komunitateen arteko harrema-

netara ala nortasun bera duten giza taldeetara interesatzen da. Bost alor nagusi aipa daitezke:

1. *Soziolinguistika esleitua eta hizkuntzen kudeaketa*. Adibidez, hizkuntza politiken tipologiak osatzen dira zenbait irizpideren arabera baita ere politika horiek ebaluatu eta norabide berriak proposatu.
2. *Gatazka diglosikoen dinamika soziolinguistikoen azterketa*. Alor honek historia eta hizkuntzen erabilera eragina duten irudi, jarrera eta irizkiak kontutan hartzen ditu, batez ere hizkuntzen arteko harremanak gatazkatsuak direlarik eta indar harremanak daudelarik.
3. *Hizkuntza komunitatearen barruan suertatzen diren aldaketa soziolinguistikoen analisisa*. Landa lanean burututako ikerketa horietan, hizkuntza baten aldaketen ibilmolde soziolinguistikoen azterketa burutzen da, esaterako egitura gramatikal baten aldaketa.
4. *Kreolizazio gertaeren eta kreoloen ikerketa*. Kolonialismoaren eraginez, hizkuntza komunitatearen eta hizkuntza berriaren sorrera (esklabue-na alegia) jorratuak dira, kolonoen hizkuntzatik habiatuz.
5. *Hizkuntzen arteko harremanen azterketa migrazio egoeretan*. Barne eta kanpo migrazioek gertakari soziolinguistiko bereziak sortzen dituzte. Migranteen usadio soziolinguistikoek aldaketak ezagutzen dituzte beraien hizkuntza erreperitorioak aldatzen diren neurrian.

HIZKUNTZA KOMUNITATEA

Hizkuntza komunitatea hizkuntza hamankomun bat erabiltzen duten pertsona multzo batek osatzen du. Horrek ez du esan nahi hizkuntzaren itxura berdina erabiltzen dituztenik, baizik eta hizkuntzaren erabilera inguruan arau berdina partekatzen dituztela, azken hauek oso antzekoak bezain egonkorra baitira. Bourdieu-k, bere aldetik, hizkuntza komunitatea definitzen du merkatu bat gisa non, hizkuntza praktikak ebaluatuak izateaz gain, indar harreman sinbolikoak gauzatzen diren. Bi kasuetan, hizkuntzaren erabilera ezberdinetatik habiatuz, praktika horiei loturiko jarrera, balore eta irudiak agertarazi nahi dira baita hizkuntza egoeren dinamikan dituzten eraginak ere.

Aldaketa hizkuntzaren erabilera oinarria

Hizkuntzen erabilera asko aldatzen da jatorri geografiko eta sozialen arabera baita adin, sexu edo komunikazio egoeren arabera.

1. *Jatorri geografikoa ezberdintasun jatorri handia da*. *Le français dans tous les sens* liburuan, Walter-ek erakusten du, gosari, bazkari eta afa-ri hitzak asko aldatzen direla frantziako eskualde batetik bestera. Ulergarria denez, aldeak oparagoak dira ahozkoan ez eta idatzian ;

Azken hamarkadetan, soziolinguistikak garapen nabarmena ezagutu du frantzian, berrikuntza teoriko eta metodologoak ekarriz, argitaratzen diren liburu zein artikulu anitzek joera hori erakusten dutelarik. Labov-ek dio linguistika orokorraren barruan sartu daitekela, Saussure-n planteamendua kritikatu. Zentzu horretan, esan daiteke, soziolinguistika, linguistika nagusiaren kritika batetik habiatu dela. Frantzian, soziolinguistika 13 eskoletan banatzen da, Rouen-go eskolako linguistika sozialetik eta dialektologiatik, Bourdieu-k inspiratu duen erreferentzien teoriara, eskola okzitandarretik igaroz.

Hizkuntza komunitatea hizkuntza hamankomun bat erabiltzen duten pertsona multzo batek osatzen du. Horrek ez du esan nahi hizkuntzaren itxura berdina erabiltzen dituztenik, baizik eta hizkuntzaren erabileraren inguruan arau berdina partekatzen dituztela, azken hauek oso antzekoak bezain egonkorak baitira. Bourdieu-k, bere aldetik, hizkuntza komunitatea definitzen du merkatu bat gisa non, hizkuntza praktikak ebaluatuak izateaz gain, indar harreman sinbolikoak gauzatzen diren. Bi kasuetan, hizkuntzaren erabilera ezberdinetatik habiatuz, praktika horiei loturiko jarrera, balore eta irudiak agertarazi nahi dira baita hizkuntza egoeren dinamikan dituzten eraginak ere.

morfosintaksiak ere ezberdintasunak agertarazten dituelarik. Tuailon-ek dion bezala, «erregionalismo gramatikala bizirik dago ez baita urririk. Frantses arruntak esaten duen gauza bat dio». Fonologiak eta fonetikak ere antzeko diferentziak agertarazten ditu eta maiz hiztun bat kokatzea baimentzen du, Frantziako ipar eta hegoaldeko pertsonen azentu ezberdintasunak esaterako.

2. *Jatorri soziala.* Frantses herrikoia, hizkuntzaren erabilera berezi bat da, hizkuntza egokitik urruntzen dena. Boyer-ek dion gisara, «frantses herrikoak ez du frantses arautuaren erlatiboaren sistema konplexua errespetatzen. Bi ibilmolde gramatikalak gehitzen dituen morfemo zerrenda batek ezaugarritzen du: menderatze tresna bat eta ize-nordain bat».

3. *Adina* eta adin talde baten kidea izatea ezberdintasun faktore bat da. Izan ere, hizkuntza komunitate baten barruan, adin talde eta beraz hitzegiteko modu ezberdinak une berean baitaude. Gazteen hizkeraz hitz egiten delarik, hirietako eta hauzo zailtako hizkeraz mintzo da.

4. *Komunikazio unek.* Bai ahozkoan, bai idatzian, hizkuntzaren erabilera aldatzen da egoeren, testuinguruaren, uneen, gaien ala solaskidenean arabera. Frantsesez adibidez, «mort» ala «décédé» baita «habiter» edo «être domicilié» hitzak erabiltzen dira eguneroko bizian ala administrazioan. Era berean, idatzian ahozkoan baino hiztegi formailagoa baliatzen da zeren, frantsesez esaterako, idatzian «je ne sais pas» erabiltzen den bitartean, ahozkoan «je sais pas» ala «j'sais pas» baliatzen dira.

5. *Sexuaren arabera ere aldeak nabari dira.* Labov-ek egindako ikerketa ezagunearan, erakusten du emazteak prestigiodun modeloetara sentiberagoak direla eta beraien hizkuntza gehiago zaintzen dutela, hainbat kasutan berritzaileak izan arren. Honakoa gertatzen da: familian eta lagunaren artean emazteek forma berritzaileak erabiltzen dituzte, aintzindariak izanez, aldiz lanean ala publikoan beraien hizkuntza gehiago zaintzen dute.

HIZKUNTZA MERKATUA

Bourdieu-ren iritziz, komunitate batean dauden hizkuntza trukaketek ekonomia berezi bat agerian uzten dute. Merkatu horretan, kapital kultural handiena dutenek, arduradun karguak betetzeaz gain, beraien ikuspegiak derrigortzen dituzte. Indar harreman horretan, nagusi direnak esaten dute nola hitz egin behar den, zein hiztegi erabiltzea komeni den baita zein azentu baliatu behar den ere.

Beraz, Bourdieu-ren iritziz honakoa onartu behar da : «hizkuntza komunitate batean, inork ezin ditzake erabat hizkuntza eta kultura legeak ezjakin, batik bat gaitasun zilegia dutenekin harremanetan sartzan

diren aldi bakoitzean. Izan ere, egoera ofizialetan kokatuak direnean, menderatuek beraien hizkuntza ekoizpenei ezfagoretuak zaizkien prezioen osaketa legeak gorputz eta praktikoen ezagupenetan adierazten dituzte. Horrek, zuzentasun ala ixiltzerako bidean, indar amaiezin bat egitera derrigortzen ditu».

«Hala ere, aurkatuak diren merkatuak sailkatu daitezke beraien autonomia mailaren arabera, erabat arau nagusiei menpekotuak direnetik, lege horiek gainditzen dituzteneraino. Hizkuntza zilegitasun baten adierazpena eta, bere bidez, usadioen ezzagupen erabaki batean oinarritutako diskurtsoa eta merkatu nagusiak ezaugarritzen dituen usadioek, ez dute gehiago balio merkatu irikien barruan, proioak zaiokion prezioen formakuntza legeek arauturik baitaude, esan nahi baita klase menderatuei proioak zaiokien guneean, sinboliko menderatzaileak baztertuak direla».

«Argotak legitimitate kulturalaren oinarritzko funtsak benetan hausnartzen ditu, aurkatua baita ezberdina den nortasun sozial et kultural baten baieztapenaren ondorioz. Eta bertan adierazten den munduaren ikuspegia, klase menderatuetako kideek klasearen barruan gertatzen diren hizkuntza trukaketen mugetarantz doaz, bereziki trukaketa zainduenetan, tabernetan esaterako non indar eta gizontasun baloreak erabat nagusi diren. Gogor egite oinarri eraginkorrenetarikoa da, politikarekin batera, hitzegiteko eta ekiteko modu nagusien aurka»¹.

Bourdieu-k babesten duen tesia hauzo zailletako hizkerak agerian uzten du. Izan ere, *argot*-ak ala frantses ez legitimoak hiru eginbehar ditu: 1) ludikoa, 2) kriptikoa, esan nahi baita hizkuntza kode bereziak sortzen direla beste pertsonen ez dezaten hizkuntza hori ulertu, eta 3) nortasun funtzioa, hots, hizkuntza, taldearen ezaugarria bilakatzen dela. Hizkuntza merkatu hori eta bertan erabiltzen den hizkuntza, modu bat da eskola porrotari eta haustura sozialari aurre egiteko baita hizkuntza ez zilegia baieztatzeko. Horrez gain, hauzo horietako gazte askok beraien gizontasuna adierazteko modu bat bezala ikusten dute.

Hizkuntza merkatua ez da inoiz batua, batez ere Frantziar non hizkuntza bakarreko ohitura dagoen, bai eskolan, bai lan munduan. Beraz, nahiz eta merkatu ofizial bat egon, inguraldeko merkatuak daude non hizkuntza arauen araberrako jazaepena eta hastura nagusi diren. Baina, kasu gehienetan, hizkuntza formala ez ongi menperatzeak arazoak sortzen ditu eta gabezia bat gisa bizi da. Bourdieu-ek erakusten du nola hizkuntza ezsegurtasuna sentitzen den, hizkuntza legitimoaren kodeak ez direlarik ongi menperatzen. Labov-ek agerian uzten du burgesia txikian aurkitzen dela hizkuntza ezsegurtasunik handiena eta eskolak hedatzen duen frantsesaren ikuspegi garbi bezain garden bati lotua dago.

Horrekin batera, erabateko zuzenketa joera dago, batez ere publikoan hitz egiten delarik. Erabiltzen da erakusteko forma gramatikal, hitz ala esateko modu egokiak menperatzen direla, nahiz ez arau horiek ez ongi ezagutu. Beraz, erabateko zuzenketa hizkuntza ezsegurtasunaren adie-

Bourdieu-ren iritziz, komunitate batean dauden hizkuntza trukaketek ekonomia berezi bat agerian uzten dute. Merkatu horretan, kapital kultural handiena dutenek, arduradun karguak betetzeaz gain, beraien ikuspegiak derrigortzen dituzte. Indar harreman horretan, nagusi direnak esaten dute nola hitz egin behar den, zein hiztegi erabiltzea komeni den baita zein azentu baliatu behar den ere.

Bourdieu-k babesten duen tesia hauzo zailtako hizkerak agerian uzten du. Izan ere, argot-ak ala frantses ez legitimoak hiru eginbehar ditu : 1) ludikoa, 2) kriptikoa, esan nahi baita hizkuntza kode bereziak sortzen direla beste pertsonen ez dezaten hizkuntza hori ulertu, eta 3) nortasun funtzioa, hots, hizkuntza, taldearen ezaugarria bilakatzen dela.

razleatariko bat da, batez ere maila soziokultural apaleko jendeetan eta usadio legetimoekin itsututa dauden pertsonetan. Garbizaletasuna hizkuntzaren ikuspegi atzerakoi bati lotua dago non arauetoki garrantzitsuegia ematen zaien. Ondorioz, ezberdintasun guziak mehatxuak eta desintegrazio arrixkuak bezala ikusiak dira.

Horrek irudiak jorratzera garamatza, jakinik irudiak, sozialki osatuak eta partekatutako diren ezagutza mota praktikoa direla zeren munduarengan eta besteengan eragiteko balio dute. Ondorioz, irudi soziala simplifikatzailea eta eskematizatzailea da: ahalik eta jende zabalenari irekia eta errealtatearen ikusmenean eraginkorra izan behar da. Beste irudi kolektiboak bezala, irudi soziolinguistikoak munduarekiko eta besteekiko harremanak erabakitzen dituen interpretazio eskemak dira. Bourdieuren aburuz, «errealtatean, erralitatearen irudia sartu behar da ala, zehazkiago, irudien guduak buruko irudien baita buruko irudiek erabili nahi dituzten adierazpen sozialak gisa ulertu behar dira». Irudi soziolinguistikoak aldakorrek direla erakusten du, beretzako, hizkuntza, dialektoa edo akzentua, errealtate soziolinguistikoak izateaz gain, buruko irudien errepresentazioak dira, esan nahi baita ikusmen, estimazio, ezagutza eta eza-gupen ekintzak direla. Funtsean, irudi bakoitzak ebaluaketa bat inplikatzen du eta beraz eduki normatibo bat, zeinek irudi baloratzailer baterantz ala besterantz norabidetzen duen.

Estereotipoa irudi berezi bat da zeren, simplifikazio prozesu batetik etorriz, errealtatea eskematizatzeaz gain, gutxitzen du, kristalizazio batera eramanez eta mugiezina bilakatuz. Altabada, ibilmolde kognitibo arrunt baten ekoizpena da, nahiz eta ingurugiroa ez den kontutan hartzen, konplexuegia izanik. Labov-en iritziz, estereotipoak, sozialki markatutako eta estigmatizatutako formak dira, paristarra ala marsellesa hizkuntza itxura tipikoak direla alegia.

Irudi guzi horiek hizkuntza ideologia bat osatzen dute, frantzia elebakartasunari lotua dagoena. Hiru irudi nagusiak dira:

1. hizkuntza historikoen irudi hierarkiko bat dauka non hizkuntza bakoitza jeinu bati lotua dagoen eta edozein tokitan erabili daiteken, unibertsa bilakatuz. Ondorioz, hizkuntza dialektotik bereizten da.
2. hizkuntzaren irudi politiko-administratibo bat non hizkuntza nazionala eta hizkuntza ofiziala nahasten diren, non hizkuntza gutxituak eskualdekoak bilakatzen diren eta non Konstituzioak frantsesa babesten duen.
3. hizkuntzaren irudi elitista bat non denborarekin frantsesaren erabilera bere edertasun zein bikaintasunetik urruntzen den. Hortik dator hizkuntza purismoa eta hizkuntzaren erabilera egokiaren itsumena.

Ikuspegi honek, eraginak ukan ditu hizkuntza praktiketan: batetik, hizkuntza nazionala ez dago beste hizkuntzekin lehian eta, bestetik, arau

legitimo bakarra hizkuntzaren usadio egokia da, horrek, hizkuntza ezsegurtasuna sortzen duelarik baita ere estigmatizazio joera sakona.

HIZKUNTZEN HARREMANA ETA KUDEAKETA

Ondoren, hizkuntzen arteko harreman baketsuak edo bortitzak jorratuko dira testuingu geopolitiko batzuetan non bi hizkuntzek idar harreman bat daukaten arrazoi politiko-administratibo ala sozio-ekonomikoengatik. Kasu horietan, hizkuntza batzuk gutxituak, eskualdekoak ala lekukoak bezala izendatuak dira, hizkuntza nagusia nazionalizat ala ofizializat jotzen den bitartean. Horrek, hizkuntza politikak jorratzera garamatza, jakinik ez dutela nahi ta nahi ez ekintza publiko ofizial baten itxura hartzen baizik eta elkartean zein gizabanakoen esku-hartzei lekua uzten diela.

Hizkuntzen harremana eta gatazka

Diglosia gatazka gisa

Diglosia konzeptua XIX. Mendean agertzen da eta Fergusson zein Fishman-ek ezagutarazi dute. Laburbilduz, esan daiteke ipar ameriketako soziolinguistetzako diglosiak hizkuntza bateko bi aldaeren ala bi hizkuntzen arteko erabilera funtzionalaren banaketa adierazten duela. Diglosiatz hitz egiten da bi hizkuntzen arteko erabilera oso argiki berezia delarik. Adibidez, Frantsesa hizkuntza formal, ofizial eta prestigioduna den bitartean, euskara hizkuntza arrunta bezain gutxietsia lez ikusia da. Pentsalari horien arabera, pratika linguistiko horien banaketa egonkorra zein orekatua da.

Hizkuntza gutxituetan adituak diren ikertzaileek, diglosia konzeptua beste zentzu batean erabiliko dute. Katalunian, adibidez, ohartuko dira espainola eta katalana lehia desorekatu batean daudela eta erakutsiko dute hizkuntzen harteko harremanak askoz ere aldakorrak eta gatazkatsua goak direla. Izan ere, zapalkuntza testuinguru batean, desoreka eta ezegonkortazuna dira nagusi, menderatzailea bata, menderatua bestea. Zeren, edo hizkuntza ofizialak hizkuntza gutxitua pixkanaka ordezkutzen du, edo hizkuntza horretako hiztunek haurre egiten dute beraien hizkuntzaren erabilera berreskuratzeko, ez bakarrik esparru pribatua baita ere zerbitzu publikoetan, komunikabideetan eta eskolan, beti ere erabileraren usadio egokiak errespetatuz, ortografia, hiztegia eta fonetika mailetan.

Hizkuntzen arteko harreman gatazkatsuetan, irudi eta ideologia diglosikoek pizu handia dute gatazka horren egonkortasunean eta bila-kaeran. Lafont-ek dion bezala : «diglosiaren irudiak bi motatakoak dira: alde batetik, usadioak onartarazten dituen desbalorapenak sendotzen ditu eta, beste aldetik, ordainketa mugimendu are eta indartsuago bat eragiten du zapaldua dagoen hizkuntza mehatxatua sentitzen denean,

*Bourdieu-ren aburuz,
«errealitatean,
erralitatearen irudia sartu
behar da ala, zehazkiago,
irudien gudua buruko
irudien baita buruko
irudiek erabili nahi
dituzten adierazpen
sozialak gisa ulertu behar
dira».*

*Hizkuntza politika
konzeptua hizkuntza
planifikazio nozioari
loturik dago, gertaera
bereko bi aldeak baitira.
Zentzu horretan,
hizkuntza planifikazioa,
aukera, begiramen eta
ikuspegi batzuen
gauzapena eta
instituzionalizazioa da.*

mitologia militar bat alegia, zeinek B hizkuntzari A hizkuntzari onartzen ez dizkion kalitateak ematen dizkion. Hizkuntza menderatuaren idealizazio horrek, bitxiki, hizkuntza zapalduaren lekua indartzen du. Hizkuntza unibertso irauli horretan, usadioa ez da gehiago balore bat gisa ikusia, baizik eta makurtzen den egintza bat bezala».

Lafont-ek okzidandarraren inguruan dagoen hobetasun soziolinguistikoa jorratzen du, frantsesa eta okzitandarraren arteko harreman diglosikoa erakutsi nahiz. Hobetasun sentimendu handiena baseritarren artean aurkituko dugu. Izan ere, mende hasieran, okzitandarra oso estigmatizatu zen eskola munduan eta hainbat neska-mutil zauritu eta mindu zituen beraien hizkuntza erabiltzeagatik zigortuak baitziren. Horrez gain, frantsesa gaizki mintzatzearen beldurra, promozio sozialik ez ezagutzearen kezka eta bertan gelditzearen bortxa nagusi ziren. Hori dela eta, ez zuten gehiago okzitandarrez hitz egin nahi, ez beraien senar-emazteekin ezta beraien hurrekin ere.

Elebitasuna eta nahasketa

Beste ikerlari batzuek, suizoak batik bat, hizkuntzen arteko harreman baketsuak aztertu dituzte, kalko, hartze, interferentzia, aldizkatzea ala lan-kidetza gertaerak agerian utziz. Fenomeno mikrosoziolinguistikoak hobesten dituzte, adibidez hizkuntza harremanak aztertuz. Horren arabera, hizkuntza aldaketak pertsonen arteko harremanen egituran dauden funtsezko aldaketak adierazten ditu eta ez testuinguru makrosoziolinguistikoarenak. Haatik, errealitatean, deskribatzen dituzten gertakizun mikro-soziologikoen erakunde eta gertakizun makrosoziologikoen lotuak dira eta, ondorioz, gizarte osoari. Ikerlari horiek elebitasunean ekiten dute.

Beste soziolinguista batzuek aldiz nahasketa gertaerak aztertu dituzte, batez ere kreoloen kasuan. Kreoloak, kolonizazioak sorturiko hizkuntza sistema autonomo bat adierazten du eta, frantziari dagokionez, kolonoek erabiltzen zuten frantsesa komunitate baten ama hizkuntza bilakatu da, batzuetan hizkuntza ofizialak baino askoz gehiago erabilia dena, besteak beste, eguneroko bizian.

Hizkuntza politikak

Hizkuntza politikaren definizioa

Hizkuntza politika konzeptua hizkuntza planifikazio nozioari loturik dago, gertaera bereko bi aldeak baitira. Zentzu horretan, hizkuntza planifikazioa, aukera, begiramen eta ikuspegi batzuen gauzapena eta instituzionalizazioa da. Garmadi-k honako zehaztapena ematen du: «hizkuntza planifikazioa hizkuntza arazoak konpontzeko saiakera eta indar konziente bat da. Hizkuntza praktika eta usadioak bultzatzeko ala ez eta era-

giteko hartutako erabakiak dira. Hizkuntza baten itxura eta bere erabileta baita diskurtsoa ere, deliberatuko aldatzeko indarren gehiketa da. Hizkuntza bat bururatzea da berezitasun nazional bat adieraziz. Normatiboki hizkuntza bat erreformatzea eta estandarizatzea da. Ahozko hizkuntza bati idatzizko kode bat ematea da. Une kolonial eta kolonialondo batean elebitasunerako irixteko baliabide zientifikoak erabakitzea da. Europako hizkuntzen historian pillatutako esperientzia, deskolonizatutako herrien hizkuntza errealitatei egokitzea da. Hizkuntza baten hiztegia, herri baten garapen ekonomiko, sozial, tekniko eta kulturalari egokitzea da».

Zentzu horretan, hizkuntza planifikazioak hizkuntzan dihardu egitura eta sistema gisa, ibilmolde eta kulturen arteko harremanak bezala ala hizkuntzen aniztasunaren kudeaketak gisa. Hizkuntza politika eta planifikazioaren arteko harremana Calvet-ek zehazten du: «hizkuntza politika, hizkuntza eta bizitza sozialaren artean eginak diren aukera konzienteak bezala ikusia da eta, bereziki, hizkuntza eta bizitza nazionala eta hizkuntza planifikazioa zein hizkuntza politika gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideen bilatzea eta aplikapena». Beraz, hizkuntza planifikazioak hizkuntza politika suposatzen badu, aurkakoa ez da egia. Izan ere, gerta daiteke Estatu, nazio ala komunitate batek ez ahalmenik ukatea erabakitako hizkuntza politika gauzatzeko eta gerta daiteke hizkuntza baten aldeko neurriek ez alderdi instituzionalik hartzea.

Frantzia, horren adierazlea da. Estadutik ala gizartetik etorri daitezela, hizkuntza politikak duela gutxi legearen itxura hartu du. Rouquettek dion lez: «Frantzia herri bat da non hizkuntza legedia umekia den. Legedi gehiena, erregimen zahar eta iraultza garaikoa ala gerra ostekoa da. Nahiz eta politikak ez diren gelditu iraultza frantsesetik IV. Errepublikaraino, Estatu botereak zuzenbidea gutxi erabili du» ; azken urteetan, legearen erabilera garatu bada ere.

Hizkuntzen arteko desoreka adierazteko Marcellesi-k glottopolitika konzeptua erabiltzen du zeren, bere aburuz, hizkuntza eta elearen arteko ihardokitzea indargabetzen du. Gizarte batek, konzienteki ala ez, hizkuntzaren gainen duen ekintza ulertzeko dituen teoria ezberdinak adierazten ditu, izan dadila gizarteak frantsesa eta hizkuntza gutxituaren estatusak zehazten dituelarik, elearen erabilera batzuk zigortzen dituelarik ala eskolak ekoizpen batzuk aztertzen dituenen. Hala ere, glottopolitika, zabalegia da, mota guztietako gertaerak biltzen baititu.

Zehazkiago, hizkuntza politikak esparru anitz hunki ditzake :

– Hizkuntza bere nortasun egituran hunki dezake. Esku-hartze normatibo bat izan daiteke hizkuntza kodifikatu nahiz, izan dadila gramatika, hiztegi ala fonetika mailetan edota forma estandarizatu bat eman guraz, euskara batua adibide dela, nahiz eta ez duen gobernu batek egin. Era berean, ahozko hizkuntza bati idatzizko itxura eman ahal dio eta eskolaren bidez heda dezake.

**. Errepublikak
Monarkiapean nagusi
ziren joerak indartu ditu.
Frantsesa eta hizkuntza
gutxituen arteko
harreman desorekatua ez
konpontzeaz gain,
hizkuntza horien
erabilera mugatuz,
hizkuntza gutxituen
araberako jarrera eta
irudi ezkorrak garatu
ditu, nazioaren
batasunaren eta
beharrezkoa zen
alfabetizazioaren izenean.
Patois izendapenak eta
horrek daukan karga
ezbalarizatzaileak,
frantsesaren nagusitasuna
areagotu du hizkuntza
nazional bakar bat
derrigortuz. Bere
eraginkortasuna are eta
handiagoa zen
zilegitasuna lortzen
baitzuen legea erabili
gabe.**

Frantziak hizkuntza gutxituak garatzeko politika bati uko egin dio, frantsesa eta euskararen arteko harreman desorekatua garatzen utziz. Hala ere, 1990. hamarakadatik landa hizkuntza gutxituen aldeko neurriak hartzen hasi dira ohartu baitira antzeko egoera batean zegoela frantsesa ingelesarekiko.

- Hizkuntza bere ibilmolde soziokulturaletan zehaz dezake, bere estatusa, lurraldea edota erabilera finkatuz, batez ere lehia eta menderatze egoera baten aurrean bagaude.
- Helburu linguistikoa edo soziolinguistikoa ukan dezake, besteak beste hizkuntza bat normalizatu nahi delarik. Katalunian, esaterako, hizkuntzaren normalizazioak kontutan hartzen du XX. mendean hizkuntza normatibizazioa maila handi batean egin dela.

Literatura anglosajoiak, *corpus planning* konzeptua baliatzen du hizkuntza beraren antolaketaz ari delarik eta *status plan* nozioa erabiltzen du esku-hartzeak hizkuntzaren estatusa hunkitzen duelarik. Bereizketa horretatik habituz eta itxura zein eginbeharra zehaztuz, Haugen-ek honako modeloa aurkezten du:

	Itxura	Eginbeharra
Gizartea	Arauaren aukera - Arazoaren ezagutzea - Itxurakeria	Txertatzea - zuzenketa neurriak - ebaluaketa
Hizkuntza	Arauaren kodifikazioa - ortografia - sintaksia - hiztegia	Hizkuntzaren modernizazioa - hiztegiaren modernizazioa - hizkuntzaren funtzio estilistikoaren garapena

Hizkuntza politika frantzian

Espania nahiko haurreratua bada hizkuntza gutxituen ezagupenean, ez da gauza bera gertatzen frantzian non eskualde hizkuntzak jarraian Estatu aferak bilakatzen diren, Deixonne legea egon arren (1951). Jarrera hori urrundik dator, hizkuntza gutxituak, izan dadila euskara, bretoiera, korsikarra ala okzitandarra, frantsesaren etsaiak bezala ikusiak izan baitira, bere garapenerako oztopoak balira gisa. Errepublikak Monarkiapean nagusi ziren joerak indartu ditu. Frantsesa eta hizkuntza gutxituen arteko harreman desorekatua ez konpontzeaz gain, hizkuntza horien erabilera mugatuz, hizkuntza gutxituen araberako jarrera eta irudi ezkorrak garatu ditu, nazioaren batasunaren eta beharrezkoa zen alfabetizazioaren izenean. *Patois* izendapenak eta horrek daukan karga ezbalorizatzaileak, frantsesaren nagusitasuna areagotu du hizkuntza nazional bakar bat derrigortuz. Bere eraginkortasuna are eta handiagoa zen zilegitasuna lortzen baitzuen legea erabili gabe. Abbé Grégoire-en helburua, *patois* deiturikoak suntsitzeaz gain, frantses hizkuntza unibertsalizatzea zen. Errepubli-

karen eskolak indar itzelak egin arren, ez da bere helburua erabat betetze-
ra iritxi zeren eskualde askotan elkarteak eta erakundeak borrokatu dira
hizkuntza gutxituak ezagupen ofiziala lortu eta bizirik jarrai dezaten.

Beraz, Frantziak hizkuntza gutxituak garatzeko politika bati uko
egin dio, frantsesa eta euskararen arteko harreman desorekatua garatzen
utziz. Hala ere, 1990. hamarakadatik landa hizkuntza gutxituen aldeko
neurriak hartzen hasi dira ohartu baitira antzeko egoera batean zegoela
frantsesa ingelesarekiko.

Nortasun eta lurralde funtsak

Orohar hizkuntzen arteko harreman baketsu ala gatazkatsuak hizkuntza
politika baten bidez jorratu nahi direlarik, beraien osagai indibidual zein
kolektiboak kontutan hartu behar dira, zeren hizkuntz aniztasuna komu-
nitateen eta pertsonen kontua da. Beraz, hizkuntza politika guztiek bi
oinarri kontutan hartzen dituzte :

- Nortasun oinarriaren arabera, hizkuntzaren aukera, gizabankoaren
eskubide indibidualetan sartzen da, zeren herritar bakoitzak Estadua-
rengandik itxoi ten du bere hizkuntza eta kulturak errespetatu ditzan.
- Lurraldetasun oinarriaren arabera, hizkuntz aniztasunaren kudea-
ketak espazioalizazio bat suposatzen du, probintziatik autonomi
erkidegora doana, udaletik igaroz.

Lurraldetasunaren oinarriak hizkuntza planifikazio gehienak iradoki
ditu, arrakasta ezberdinekin, zeren hizkuntza politika baten arrakasta
lurraldetasunaren irakurketa malgu batean kokatzen da. Maila horretan,
Finlandiak bide interesgarri bat hartu du, batez ere distrikto elebidunak sor-
tuz. Elebitasun instituzionalak suediarren eta finesaren arteko trataera
orekatu bat bermatu nahi du. Lurraldetasuna, erroldaren arabera egiten da
gizabanako bakoitzak bere ama hizkuntza zehaztu behar baitu. Datu horien
arabera ikusten da zein hizkuntza estatus emango zaion distriktoari : finesa
soilik, suediarra bakarrik ala elebiduna. Estatusak hamar urterako balio du.

Printzipioz, Estatu guzrien helburua bi edo hiru hizkuntzen artean
dauden zapalkuntza eta gatazka harremanak desagertaraztea da giro
baketsu batean. Haatik, hizkuntza politika ez da bakarrik zein simpleki
osetzen eta gauzaten, alde batetik, eta, beste aldetik, hizkuntzen arteko
harreman baketsuak ez dira soilik lortzen goi mailako erabakien bidez,
gizarte zibilaren eta berau osatzen duten gizakien ekintzei lotua dago.
Alabaina, goi mailako erabakiak, hizkuntza gutxitu baten ofizialtasuna
adibidez, ezinbestekoak dira helburu hori lortzeko.

Hizkuntza politika bat gauzatu ahal izateko premiazkoa da egitura
instituzionalak egotea eta, beharrez, sortzea. Adibidez, akademiak, kon-
tseiluak, eskolak, ministeritzak ala komunikabideak sortzea ezinbestekoa

*Orohar hizkuntzen arteko
harreman baketsu ala
gatazkatsuak hizkuntza
politika baten bidez
jorratu nahi direlarik,
beraien osagai indibidual
zein kolektiboak
kontutan hartu behar
dira, zeren hizkuntz
aniztasuna komunitateen
eta pertsonen kontua da.*

Frantziaren kasua aztertzerakoan, ohartzen gara 1960. hamarkadaren amaierarik landa hizkuntza politikak bi itxura hartu dituela, batetik, frantsesaren erabilerari loturikoa (1975 eta 1994ko legeak) eta, bestetik, erakunde ezberdinen sorrera. Duela denbora gutxi sortu diren legeek ingelesaren eragin geroz eta handiagoari aurre egin nahi diote, batik bat hiztegi gintzan.

da, hizkuntza politikaren tresnak baitira zailtasun egoera batean dagoen hizkuntza sustatu eta aintzinarazteko.

Frantziako egitura instituzionala

Frantziaren kasua aztertzerakoan, ohartzen gara 1960. hamarkadaren amaierarik landa hizkuntza politikak bi itxura hartu dituela, batetik, frantsesaren erabilerari loturikoa (1975 eta 1994ko legeak) eta, bestetik, erakunde ezberdinen sorrera. Duela denbora gutxi sortu diren legeek ingelesaren eragin geroz eta handiagoari aurre egin nahi diote, batik bat hiztegi gintzan. Adibidez, 1975ko legearen aurretik dekretu batek hiztegi batzordeen sorrera aurreikusten zuen Estatuaren administrazio guztietan, beharrak ala eskatu ezker. 1975ko legean esku-hartze esparrua komunikazio eta jarduera sozial anitzetara hedatzen zen : «izendapenean, eskaintzan, aurkezpenean, idatzizko edo ahozko publizitateetan, erabilpen moduan, zerbitzu ala hontasun baten hedapenean eta berme baldintza baita ordain-agiri eta zor-agirietan, frantsesaren erabilpena derrigorrezkoa da. Kanpotar hitz ala esaeren baliapen guztiak debekatuak dira». Lege horrek zigorrak aurreikusten ditu, nahiz eta ez gauzatuak izan.

1980. hamarkadan sortutako erakundeek, bi itxura hartu dituzte funtsean: 1) Lehen Ministroari loturiko barne instituzioak, esaterako Hizkuntza Frantsesaren Ordezkaritza Orokorra ala Hizkuntza Frantsesaren Goi Kontseilua, eta 2) kanpoari begira dauden erakundeak, hala nola, Frankofoniaren Goi Kontseilua eta, beste maila batean, Kultura eta Teknika Lankidetzaren Bulegoa.

AMAIERA

Gogora dezagun, azken hamarkadetan, soziolinguistikak garapen nabarmena ezagutu du Frantzian, berrikuntza teoriko eta metodologoak ekarriz, argitaratzen diren liburu zein artikuluko anitzek joera hori erakusten dutelarik. Funtsean, soziolinguistika 13 eskoletan banatzen da, Rouen-go eskolako linguistika sozialetik eta dialektologiatik, Bourdieu-k inspiratu duen erreferentzien teoriara, eskola okzitandarretik igaroz. Ez dago soziolinguistikaren batasunik zeren oso ezberdinak diren lan taldeak, beraien erreferentzia teoriko, objektu eta problematikekin, aurkatzen dira jakingaiaren definizioaren inguruan. Soziolinguistika garaikidea, hizkuntza komunitatera, hizkuntzen arteko harremanetara ala nortasun bera duten giza taldeetara interesatzen da. Bost alor nagusi aipa daitezke: 1) soziolinguistika esleitua eta hizkuntzen kudeaketa, 2) gatazka diglosikoen dinamika soziolinguistikoen azterketa, 3) hizkuntza komunitatearen barruan suertatzen diren aldaketa soziolinguistikoen analisia, 4) kreolizazio gertaeren eta kreoloen ikerketa eta 5) hizkuntzen arteko harremanen azterketa migrazio egoeretan.

Frantziako soziolinguistikaren aurkezpena amaitzerakoan, zera agerian geratzen da, alegia, herri bateko soziolinguistikataz hitzegiteak ez duela zentzu handirik. Hain zuzen ere, Kebek, Suiza, Katalunia, Euskal Herri ala Frantziako ikerlariak munduan zehar plazaratzen diren lanak irakurtzen eta eztabaidatzen dituzte. Labov, Fishman ala Bourdieu gehienek ezagutzen dituzte eta beraien teorien ekarpenak zein mugak agerian uzteko gaitasuna daukate. Ekonomiaren mundializazioak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien agerpenak joera hori areagotu dute, hartu-emanak ugalduz eta elkar ezagutza hobetuz. Hala ere, bi faktorek trukaketa horiek mugatu dituzte, batetik, hizkuntzaren oztupoak zeren artikulua eta liburu frango ingelesez eta, maila txikiago batean, frantsesez idatziak daude eta, bestetik, herri bakoitzean nagusi diren iritzi, ohitura eta erreferentziak, nahiko ezberdinak izateaz gain, egonkorrak dira.■

BIBLIOGRAFIA

- Conseil de l'Europe, *Charte européenne des langues régionales et minoritaires*. Strasbourg, 1992.
- Constitution française du 4 octobre 1958.
- Frangi. M., «Les collectivités locales face aux langues régionales». *L'actualité juridique*, 20 avril 2000.
- Grau. G., *Langues et cultures en France contemporaine*. Conseil de la Langue française, Québec, 1982.
- Insee, «Étude de l'histoire familiale», *Courrier des statistiques*, n°93, 2000.
- Insee, «La transmission des langues et des parlers», Paris, *Insee Première*, 2002.
- Poignant. B., *Rapport sur les langues régionales*. Quimper, 1998.
- Toubon. J., Loi n° 94-665 relative à l'emploi de la langue française, 4 août 1994.
- Unesco, *Atlas des langues en péril dans le monde*, 2002.
- Urteaga. E., *La politique linguistique au Pays Basque*. Paris, L'Harmattan, 2004.
- Urteaga. E., «La langue basque au début du XXI^e siècle». *Marges Linguistiques*, n°10, Paris, 2005.
- Urteaga. E., *La langue basque dans tous ses états*. Paris, L'Harmattan, 2006.

OHARRA

1. Bourdieu. P., *Ce que parler veut dire*. Paris, Fayard, 1983, p.102-103.